

- **Entzutekuak:** Ana Gil, Kalebarreneko lotoaren jabeari elkarrizketa
- **Zer berri:** Trafiko isunak garestitu egingo dira

soraluzeko
hamabostekaria **222.** alea
2010eko maiatzaren 28an

PIL-PILEAN

ALLEGROAREN 50. URTEURRENA

**Musika egarriak
sortutako elkarte**

Argazkia: AlegroElkartearen argazkieteka

INDARRA

zure etorkizunarentzat

ARMERIA ESKOLA - EIBAR

- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- MANTENIMENDUA
- ELEKTRIZITATEA
- ELEKTRONIKA
- AUTOMATISMOAK
- TELEKOMUNIKABIDEAK-
INFORMATIKA

Izenematea: Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra



Isasi, 36 - 20600 Eibar

Tfno. 943 20 32 44

e-mail: eibar@armeriaeskola.com

www.armeriaeskola.com

Soraluzeko
elkartasun

eguna
2010

BAZKARI
HERRIKOIA

Saldia, Ensaladia, Zikirua, postria, kafia, kopia + edarixak

txartelak Arrano eta Gaztelupen salgai! 20€

Heriotza zigorrik ez! Biziarteko zigorrik ez! Sakabanaketarik ez!

**MARKEL ARIZAGA****AITOR MADRID**

PARADISUAN DANOK OSASUNTSU

Iepa Aitor, zelan dana Plaentxiatik? Ondo? Osasunez ondo? Espero dot baietz. Zelan daukazue Euskal Herritik osasun zerbitzua? Hemen Madril-en egunero-egunero kritikatzan da osasun zerbitzu publikuen txarrerako joera nabarmena. Itxoite-zerrendak gero eta amaigabiegak dira, zenbait espezialitatetan zitta berrixak lortzia ezinezko izatian puntu-raino, eta hemendik zihar osasun publikua poliki-poliki desagertzen dabilela esan leike.

Nik neuk baita jasan bihar izan dot norberan pazientzia indartzeko entrenamendu hau, abendutik apirilera itxaron bihar izan neban eta proba batzuk egitteko. Zeoze txarra izateko moduan! Bueno azkenian ez zan ezebe izan.

Horregaittik, hain kalitate eskaseko zerbitzu bat jasan eta gero bizitza publikoko pertsonai garrantzitsuenetako baten ahotan zenbait gauza entzutiak kolesterola di-da batian igoarazten dos-ta. Zein eta Espainiako erregia entzun bihar dogu osasun publikuan kalitatia paregabia dala esaten, beran ebakuntza famatua eta gero. Hori bai, berak ez dau hiru hilabetez itxoin bihar izan ospitalian ohe bat izateko eta ez dau gainontzeko herrittarron moduan logelarik konpartitu bihar izan, eta berak, gainontzeko guztiok ez moduan, erizain talde oso bat izan dau beran zerbitzura. Munduko herrialde behartsuenera jua eta bost izarretako hotel batetik urten gabe, egoeria hain txarra ez dala esatia modukua da hori.

Baina txarrena ez da guzti hau, baizik eta guretzat ordaindu ezin dogun luxu bat ordaindu dotsagula gizon honi. Azkenengo Pil-pileanen irakurri neban moduan, majua tipua ez dok?

“

Espainiako erregia entzun bihar dogu osasun publikuan kalitatia paregabia dala esaten

Markel Arizaga

Nola ez da ba majo ibiliko tipo majo hau guztion kontura!

Aitor Madrid

”

Aupa Markel. Hemen Osakidetzak ondo daki-azun moduan ematen dau osasun publiko zerbitzua. Egixa esan ez dot asko erabiltzen zerbitzu hau, zorionez osasun ona daukadan seinale. Baina medikuanera jua naizenetan beti aurkittu izan dot sendagile ezberdin bat, batian gizonetzko bat eta bestian emakumezkua. Izan be asko mugitzen dira alde bate-tik bestera medikuak. Honek sarrittan zerbitzuari kalte egitten dotsa. Gaixuen jarraipen egokixa zaildu egitten dabelako.

Hizkuntzari dagokixonez batekin izan ezik, gaztelaraz berba egin bihar izan dot beste guztixekin, gure hizkuntza ez zekixelako. Madril al-dian arazo franko daozela osasun zerbitzuetan gauza jakina da aspaldittik. Itxaron zerrenda luziak darella batez be, aldiz, hizkuntza gaixetan ez dabe arazorik izango ziurrenik. Hemen oster, alderantziz gertatzen da. Itxaron zerrenda motzak, baina komunikatzeko arazuak. Eta Gasteizen dagan gobernuari erreparatuta ez dirudi aldatzeko inongo joerarik daganik, tamalez.

Zure kolesterol arazuak areagotu dittuan pertsonaia-xan jokaeriari buruz zer esan... Monarkiatik beti dabixaz beste edozein pertsona normalen modukua dirala esaten. Bai zera! Hemen dauka-gu beste froga bat aittatutakua ukatzen dabena. Beraien “kontu korrontiak” gu-

riakin parekatu ezker ezbedinak dira, eta afera honetan beste askotan moduan, gutako edozeinek egingo zeban moduan ez dittue gauzak egitten. Monarkia estatu asuntua izanda, nola ez da ba majo ibiliko tipo majo hau guztion kontura!

Goguan hartzeko

“Porrurik ezean asuna, eukitzeko osasuna”
Gotzon Garate, euskal atsotitza



GUTUNAK

Gabolats kaleko igogailuaren inguruko aipamenak

Eskutitz honen bidez soraluzetar guztiei, gure etxaurrean jarriko den igogailuaren asuntorekin bizi izan dugun babesgabetasuna, inpotentzia eta sinesgaiztasuna jakinarazi nahi diegu.

Zer da bi etxaurren artean? 3m batetik eta 10m bestetik?

Zeintzuk parte hartu zuten hirigintza batzorde horietan? Gabolats kaleko 3an edo 5ean bizi direnak? Ezetz asmatu. Zergatik ote da?

Zer da parte hartzea? Dena erabakita egotea eta parte ezin hartzea? Bilera 6etan izanik eta 4 erdietan inori esan gabe aldarmioak jarritz?

Zer da hiru aldiz Osoko Bilkura ezberdinetatik pasatzea? Inork ikusi al du Proiektua planoren bat bozkatu baino lehenago? Non zegoen proiektu hori? Ba al zegoen beste edozein aukeraren azterketarik? Hirigintza Batzordeko buruak proiektua oso gustuko zuela adierazi zuen, baina berak hormigoizkoa zela ere ez zekien. Kristalezkoa zela uste zuen.

Obragelditzea Alkatearen eskuduntzandago. Udal Gobernu Taldeak oso garbi zuen hori. Sekulako

prisa zuten obrak hasteko. Guk obrak esleitu baino lehen, honek ez hastea eskatu genuen. Legezkoa izan arren, Alkateak bere erabakia gehiengoaren iritzia ginetik inposatu zuen.

Zergatik mozioa? Oposizioko alderdiak planoak aurrean izanik, bozkatu baino lehen behar den moduan aztertu ez zituztela konturatu ziren, Gobernu Taldearekiko konfiantzaz jokatu baitzuten gai horretan. Ez ziren konturatu, igogailua, etxaurre batetik hain hurbil zegoenik. Baina Gobernu Taldeak ez zuen emandako konfiantza merezi. Ez zuen garbi jokatu. Horregatik eskatu zuten beste Osoko Bilkura bat, nahi gabe egindako kaltea gutxitzeko asmoz, ia zerbait konpontzerik zegoen ikertzeko. Mila esker horregatik.

Igogailua egin egingo da, gutxienez kristalezkoa izango da. Guk egunero gure sudurren parean ikusiko dugu. Eskerrik asko. Hau da Gobernu Taldeak beti esaten duena "gauzak herriaren partaidetzarekin egin behar dira"; gu ez omen gara herriaren parte.

M^a Carmen Treviño

28an, 29an, 30ean goazen Bruselara!

Soraluzeko gazte independentistok, arrazoi guzti hauengatik, bat egiten dugu Gazte Herriak Bruselara joateko egiten duen deialdiarekin.

Gure aukera den independentzia lau haizetara zabaltzeko.

Gaztea izatea eta independentziaren alde jardutea, kriminalizazio eta errepresioaren bidez ordaintzen dela salatuzko.

Independentziaren aldeko jardunaren zilegitasuna ozen aldarrikatzeko.

Europako batasunaren estatuetan ematen diren oinarriko eskubideen urraketak geldiarazteko Europari exijitzeko.

Espainiar zein Frantziar estatuaren gabezia demokratikoa agerian uzteko.

Bi estatuak urratzen dituzten eskubide zibil, politiko zein sozialen defentsan harresi demokratiko bat eraikitzeke.

Eskubide zibil eta politikoak euskal gazteriarrentzat!!

Soraluzeko Gazte Independentistak



Koordinatzaile posturako lan-poltsa zabalik

Pil-pilean Euskara Elkarreak koordinatzaile posturako lan-poltsa osatu nahi du. Interesatuek koordinazioa@pilpilean.com helbidera curriculum bidali edo Pil-pilean Euskara Elkartera gerturatu, Errebal kalea 15. Telefonoa: 943 75 13 04.

Pil-pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarrea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saibilburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Ubane Madera
Iluntasunean

Batean greba, bestean manifestazioa, politikariak elkarren artean haserre, funtzionarioak munduarekin haserre, langileak beldurrez, langabeak etsituta eta konponbiderikez gertuko etorkizuneari... Beltz dago kontua, beltz! Asteon tokatu zait aspaldiko lagunekin berba egitea: bata barikuan lanera joan eta astelehenean kalean geratu zen, sei urtean fijo egon ostean. Bigarrenak, EREan sartu behar dela (Plazentziako enpresa baten). Hirugarrenak, berriz, langabezian egon dela, 13 urte eta gero, kalean utzi dutelako. Zorionez, azken horrek beste lan bat aurkitu du. Eta poz-pozik dago, nahiz eta baldintzak lehenago baino nahiko eskasagoak izan. Orain, baina, horrekin konformatu behar, eta gainera, eskerrak eman. Izan ere, 37 urterekin kalean geratuz gero, dagoena hartu egin behar, nahiz eta ikasketa titulu mordoska izan. Bide batez, martitzeneko greban zerbait kurioa ikusi nuen: EITBren barruan, Euskadi Irratikoei greba egin zuten eta Radio Euskadikoek ez. Nire konklusioa zera izan zen: euskaldunek greba eta erdaldunek ez. Atzera egin eta orain urte batzuetako egoerara bueltatuko gara? Euskaldunak alde batetik eta erdaldunak bestetik? Politikariek ezetz diote, baina kanpotik badirudi handitu egin direla euskaldun eta erdaldunen arteko desberdintasunak; zergatik ote?

((ENTZUTEKUAK))

Ana Gil, Kalebarreneko loruan jabia

Ana Gilek apopilo berezi bat dauka etxian. Luma grisez jantzita eta buztan gorrixa daukan loro baten jabia da. Loruak Robin dauka izena eta bera da Kalebarrenetik pasatzen diranak berba eta zarata ederrekin goxatzen dituana.

Noiztik bizi da loritua zuekin?

Robinek 4 urte beteko ditu ekainian eta uztailian 3 urte izango dira etxera ekarri genduala. Iruñean bizi dan loro hezitzaile bati erosi gotsan.

Zela okurridu jatzuen lorua etxian hartzia?

Loruak oso garestixak izaten dira eta ondo pentsatzeko erabakia da bat erostia. Nere gizonak, Pablok, soldauzkan loro bat ezagutu zeban eta beti nahi izan dau etxian bat eukitzia. Bere ilusina betetzearren, internet bidez hezitzaile bati erosi gotsan Robin.

Zuek hezi dozue?

Urtebete eginda ekarri genduan etxera eta hezitta zeguan. Robin loro "papilerua" da, eskuz hezittakua. Mimuak eskatzen ditu eta eskuetan hartzia izugarri gustatzen jako.

Zer jaten dau loro batek?

Pentsuaz aparte, guk jaten dugun dana jaten dau berak. Patata tortilia egitten hasten naitzenian zoratu egitten da! Gero gizonan onduan jarri eta bixak batera afaltzen dabe.

Zela erakusten jako berbetan?

Berez ikasi dau. Robin moduko loruak berba egi-



Argazkian Ana eta Robin

ten ikasteko 3 eta 5 urteko umien modukogaittasun mentala eiz dauke. Oso behatzailia da eta laster ikasten dau doinuak eta zaratak imitatzen. "Estar al loro" esaeria oin ulertzen dot nik nundik datorren.

Zer esaten dau gehixen?

Etxera sartu eta "hola" esaten dosku, urteeran "agur", goizian "egun on", "Que guapa"... Dantzan egittia asko gustatzen jako, inguruko txakurren zaratak be imitatzen ditu baina "hijo puta" esatia izugarri gustatzen jako. Etxekuak bera zirikatzen hasten garanian horixe izaten da bere erantzuna!

Kalebarreneko bizilagunekin arazorik izan dozue?

Ez, sekula bez! Pentsau, etxera ekarri genduanian "hola", "guarra" eta "viva España" bakarrik zekixan esaten eta danak barrez lehertzen ziran berakin.

"Estar al loro oin ulertzen dot zer dan"



Disceinua eta Sormena

Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebelia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Emakumeen topagunearen aurkezpena ekainaren 3an

Emakumeen Topaguneak aurkezpen ofiziala egingo du datorren egunean, arratsaldeko 19:00etan Zinean. Emakumeen Topagunean herriko 22 emakumek hartzen dute parte, 20 eta 60 urte artekoak denak, politikariak, hezkuntza eta kultur arlokoak, jubilatua, ikasleak eta beste hainbat ogibidetakoak. Aurkezpenaren helburua emakumeak elkartu eta Topagunera hurbiltzea dela dio Yoana Azpitartek, Udaleko ber-

dintasun teknikariak. Topagunearen betebeharra ere azaldu du, Berdintasun Plana herriratzea eta parte hartzen duten emakumeen iritziak planean barneratzea hain zuzen ere. Topagunea hilean behin biltzen da, eguen baten, arratsaldeko 19:00etan udaletxean. Bertan parte hartzeko izena emana nahi duten emakumeek 943 753043 telefonora deitu beharko dute edo berdintasuna@soraluze.net helbidera idatzi (Yoana).

Zanbiako musika taldeak kontzertua emango du.



Iturria: Gaztelupeko Hotsak

Emakume afrikarren ahotsa

Bestalde, Zambiano Music Crossroads Southern Africa taldea ekarriko du Topaguneak. Hasteko, aurkezpen ofiziala egingo dute eta jarraian musika saioari tarte egingo diote. Music Crossroads Southern Africa "Jeunesses Musicales International" erakundearen ekimena da Zimbabwe, Mozambique, Malawi, Tanzania eta Zambiano gazte musikariak bultzatzeko xedea duena. Informazio gehiago: www.myspace.com/musiccrossroads

Udaletxean eta ikastetxean grebaren jarraipen zabalena ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta Hiruk osatutako euskal gehiengo sindikalak martitzenerako deitutako grebak eragin handiena udaletxean eta Plaentxi LH Ikastetxean izan zuen. Udaletxea itxita egongo zen egun guztian zehar. Osasun arloan, anbulategian grebak ez zuen jarraipenik izan. Hezkuntzari dagokionez, Plaentxi LH ikastetxean, %64,2k greba egin zuen.



1960an jaiotakoek bazkaria

Ekainaren 19an bazkaria egingo dute 1960 urtean jaiotakoek Txurruka jate-txean. Izena emateko Iñarra harategira joan behar da, edo posta bat idatzi soraluze1960@hotmail.es helbidera, ekainaren 19a baino lehen.

Soraluze 1936ren aurkezpena Itxaropenan

Ekainaren 8an, martitzena, arratsaldeko 18:30ean Memoria Historikoa Berreskuratzeko Soraluze 1936 lan taldeak bere jardunaren eta helburuen aurkezpena egingo du Itxaropena Jubilatuen Elkartearen.

Zuzenketa

Pasa den alean zer berri atalean oposizioak igogailuaren lanak gelditzeko eskatu zuela idatzi genuen. Auzokoen iritzia aldiz, jaso gabe geratu zen eta barkamena eskatzen dugu horregatik. Bestalde albistean argitaratutako argazkia okerra zen, hau da aipatutako igogailua.



Mendeurrena ondo ospatuta

Soraluzeko Kooperatibak mendeurrena ospatu zuen asteburuan. Barixakuan eta zapatuan kirol, kultur eta gastronomia ekimenak izan ziren adin guztietako herritarrentzat gozagai. Eguna amaitzeko 40 lagun inguruk afaria egin zuten Txurrukan.



Iturria Carlos de Cos



MAPFRE



SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Alnoa Ibarzabal



Gabalatz, 5-B Behea
20 590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infonegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



Castelloko espexera irteera

Peio Etxeberriak 20 urte bete ditu espexean. Hau salatu eta elkartasuna adierazteko asmoz, hainbat herritarrek, ekainaren 12an Castelloko espexera irteera egingo dute. Autobusa egongo da, ekainaren 11n. Izena eman nahi duenak, Arrano Elkartean dauka aukera.

Herri elkartasuna

Elkartasun Egunarekin bat egin eta Castelloko irteerari babesa eskaini asmoz, 55 herritar inguruk talde argazkia atera zuten. Norbanakoez gain, herriko hainbat talde eta eragileen ordezkariak izan ziren.

**Danborradarako ensaioak**

Ekainaren 1ean egingo da haurren danborradako lehenengo entsegua Frontoian 19:00etatik 20:00ra. Martitzeno eta eguenero izango dira aipatutako lekuan. Nagusien danborradarako entseguak berriz, ekainaren amaieran hasiko direla esan dute antolatzaileek. Herritarren batek izena eman nahi badu, goian aipatutako ordutegian Frontoira jo behar du.

Maisuen etxeak hizpide

Joan den barixakuan Maisuen Etxeko okupek eta Ezker Abertzaleko kideek mahaingurua egin zuten Gaztetxean. Moderatzaileak 15 minutu eman zizkion alde bakoitzari bere argudioak emateko. Pil-pilean bertan izan zen eta plaentxia. com-en dago albiste landuagoa.



Trafiko isunak garestitu egingo dira

Pasa den martitzenetik 18/2010 Legea indarrean sartu eta zenbait arau-hausteren larritasuna areagotu egin da, arau-hausteengatik ipinitako isunak garestituz. Udaltzaingoak oinarrizko aldaketak eta herriko bideetako auto gidariengan eta erabiltzaileengan eragin zuzena izan dezaketean aldaketak ezagutzera eman nahi izan du. Horren arrazoia, udalerrian egin ohi den trafiko arau-hausteen azterketa estatistikoen emaitza izan da. Arau-hauste gehienak gaizki aparkatzeengatik izaten direla, alegia.

Isun erdia ordaintzeko aukera

Kopuru guztiek %50eko deskontua izango dute 20 egun naturaleko epean ordaintzen hasten badira, jakinarazpen unetik kontatzen hasita. Alegazioak aurkezteko epea ere 20 egun naturalekoa izango da eta alegazioak ezetsiko balira,

isuna %50eko deskontuarekin ordaintzeko aukera galdu egingo da.

Isunen zenbatekoa:

- ARINAK: 40 €€
- LARRIAK: 200 €€
- OSO LARRIAK: 500 €

Isun larriak:

1. Bihurguneetan, elbarrientzako erreserbatutako aparkalekuetan, bidegurutzetan edota arriskua sortu edo ibilgailuen zein pertsonen zirkulazioa oztopa daitekeen tokietan gelditzea edo aparkatzea.
2. Pasatzeko lehenetasuna (STOP, utzi pasatzen, etab.) eta zirkulazioaren norabidea eta atzermartzak ez betetzea.
3. Gidatzerakoan segurtasun elementuak ez erabiltzea (uhala, kaskoa, umeak eramateko sistemak eta bestelako babes elementuak) eta telefono mugikorra, nabigatzaileak... erabiltzea.



Herriko zubian auto batzuk gaizki utzita.

Ion Murgizu Pinturak
 MARGOKETA OROKORREAN
 Empapelatuak
 Estukoak
 Fatxadak
 Eskilarak eta patioak
 Pintura industrialak



T. 943 75 1324 M. 652 777 030
 Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Elizpe
 Hertz klinika

Gure zerbitzuak:
 - Ortodontzia ikustezina
 - Inplanteak

DOHAINDI ERBILKUSKETA
 FINANTZAKETA ZURE INDIARRIA
 KONPROMISORIK GABENKO AUREREDONTUA

MUTUALIA, PADI (Naurren arretarako hertz programa) Elizburu, 3 behea, Sorabe - Tel. 943 75 25 67



HAMAIKA TELEBISTA INTERNETEZ IKUSGAI

HAMAIKA telebista euskara hutsezko herri-telebista da, hainbat komunikabide eta erakunderen arteko elkarlanari esker sortu dena (Berria, Deia, Gara, Elkar, Diario de Gipuzkoa, Euskaltel...). Orain arte zuntz optikoa heltzen zen herrietan bakarrik zegoen HAMAIKA telebista ikusteko aukera baina dagoeneko 'www.hamaika.tv' web orriaren bitartez mundu osoan ikusi daiteke.

Dokumentalak, kultur programak, musika kontzertuak, marrazki bizidunak, euskarazko serie arrakastatsuenak eta jatorrizko bertsoan eta euskarazko azpiztituluekin emandako filmak ere ikusi daitezke bertan. HAMAIKA

telebista hedatzen ari da eta Euskal Herriko bailara gehienetan ezarriko ditu egoitzak, baita Debarrenean (Eibarrren) ere. Ikusi eta gozatu!



GORA




LOREA Euskararen txirrina

Txirrina jo eta euskarari atea zabaltzeko gertu daude leku honetan. Idatziak euskaraz ezarrita euskaldunari bere hizkuntzan egin eta euskaraz ez dakienari ikasteko beharra sortzen zaio. Horixe da hain zuzen euskarak dagozkion funtzioak berreskuratzeko behar duen praktika. Hala ere zuzentasuna zaintzea ere komeni da, euskaraz "tinbrea" edo "txirrina" da eta.



ARANTZA Euskararendako ordurik ez

Toki honetan itxuraz ez dago euskaldunondako ordutegirik. Gutxieneko eskakizuna behar luke idatzia euskaraz "ere" jartzea. Besterik ez bada, euskaldunonganako errespetuagatik.



BEHERA



HEMEROTEKA

NAFAR TOLERANTEAK LIZARRAN

Polémica en el Remontival por una canción de la semana del euskera

"La decisión del área de Euskera del colegio público Remontival de Estella de que los alumnos interpretaran una canción del grupo Oskorri en la que se incluyen frases como "si en Euskal herria no se puede hablar en euskera, tiremos la democracia donde los cerdos" o "ya es hora de que, de una vez, ganemos o perdamos esa guerra" ha originado una fuerte polémica en la comunidad del centro. La pieza musical se había incluido en una semana de actividades promovida por el departamento de Euskera. Una decisión que ha provocado la renuncia de las dos máximas responsables de la apyma..."

Diario de Navarra
2010/05/18

Barregarria litzateke negargarria ez balitz.

Zulotik
begira

Gasteizera irteera



Martxoaren 11n, martitzena, institutuko DBHko 3. mailako ikasleok Gasteizera joan ginen egun pasa. Ikusirik aste osoan egin zuen eguraldi kaxkarra, zorte galanta izan genuen, ez baitzigun euririk egin, eguzkia ere ikusi genuen. Goizeko bederatzietan atera ginen Soralezetik. Harritzekoa! Guztiok ordurako autobusean geunden!!

Gasteizera iritsi eta gure lehenengo egitekora joan ginen, Elkar liburudendara bisita. Han irakasleek emandako lan bat egin behar izan genuen. Bost irakurketa liburu aukeratu behar izan genituen, bi gaztelera, bi euskaraz eta bat ingelesez. Musikakoak ere geure gustuko diskak aurkitzeko eskatu zigun. 12ak aldera arte Elkarren egon ginen. Ondoren, Andra Maria Katedralera abiatu ginen, horretarako Gasteizko alde zaharra zeharkatu genuen eta bertako igogailu mekanikoan ibili ginen, denetik probatu behar da eta.

12:30ean bi taldetan banatu eta katedralera sartu ginen. Hasieran bideo bat ikusi genuen, ondoren kaskoa jantzi eta

barrura sartzeko. Bertan, gidari baten laguntzarekin katedralaren historia ezagutu genuen, baita bertan egiten ari diren indusketa lanen berri ere.

Katedraletik irtendakoan irakasleek Gasteizko mapa bat eman ziguten eta bertan Gasteizko hainbat eraikuntza ezagun genituen markaturik. Gure hurrengo egin beharra eraikuntza horiek aurkitzea eta beraiei buruzko galdera batzuk erantzutea izan zen. Hau egiteko denbora libreza izan genuen, talde txotan banatu eta geure kontura ibili ginen Gasteizen zehar. Denbora honetan bazkaldu ere egin genuen, batzuk etxetik emandako ogitartekoa, beste batzuk bertan erositakoa.

16:30erako Filologia Fakultatean gelditu ginen, autobusa hartzeko. Batzuk goizegi iritsi ginen eta fakultate barruan ibili ginen, bertako sofa erosoetan eserita lasai-lasai, egonean. Beno, hemen amaitzen da gure Gasteizko txangoa. Autobusean musika entzunez gustura itzuli ginen berriro ere gure herri maitera.

Mende erdiko historia musikari lotuta

Elkarteko sortzaileetako lau lagun Allegroko mahaiaren inguruan batu eta lehenengo sasoiari berri emateko desiatzen daude, Julian Bandaormaetxea, Ignacio Ernabide, Manuel Galarraga eta Vicente Mari Olaizola.

Duela 50 urteko kontuak itzeleko argitasunez gogoratzen dituzte oraindik. Bata zein mahaitan eta zeinen ondoan jartzen zen, elkartera egunero joan eta botila bat ardo edaten zuela, danborradaren sorrera eta muntaia guztiaren gora beherak eta zela den-dena musikak girotua izaten zen: “Gitarra hartu eta goizeko 4:00ak arte egoten ginan kantuan” dio Julian Bandaormaetxeak.

Izan ere, sorrera, musikak berak eragina izan zen. Sorraluzen musika taldeen lehiaketa bat antolatu zen, goiko frontoian. Kanpotik talde mordoa etorri zen herrira, Bilbotik, Bergaratik zein Eibartik.

Lehen saria osterara, herrian geratu zen. Vicente Mari Maiztegi talde hura osatzen zuten guztiez gogoratzen da: “Berbis Ecenarro eta Miguel Olaizola lehen tenorrak, Abel Treviño eta Ignacio Olaizola bigarren tenorrak, Eustaki Maiztegi eta Luis Maiztegi baritonuak eta Enrique Taapken eta Ezekiel Galarraga bajoak, zortzi lagun honek “Ochote Allegro” osatzen zebela”. Lehiaketa hau irabazi eta gero konturatu egin ziren antza, elkartzeko leku baten beharrean zeudela, euren kontuak kontatu eta kantutak kantatzeko.

Manuel Galarraga:
“Bazkide gehixenak musika ikasittakuak ginan”

Lehen bazkide multzoa 51 lagunek osatu zuten. Batzuek esku dirutan, besteek epeka, denek 1000 pezeta ipini zituzten. Soziedadeko beheko solairua erosi zuten eta gaur egun hainbeste lagun horren leku txikian zela sartzen ziren ezin sinistuta daude. 1976an goiko solairua ere erosi zuten. Ordurako bazkide kopurua bikoiztua zuten, jendeak hala eskatuta.

Musika ikasiak

Lau lagun hauek kontatzen dutenez, egunero joaten ziren elkartera: “Afaltzera batzuetan, barriketan eittera bestetan, beti zeguan denboria zela emon Allegruan”. Hegoamerikako kantutak, rantxerak eta euskal kantutak izaten ziren ohiko erreperitorioa. “Bazkide gehixenak musika ikasittakuak ginan, Juan eta Aniceto Maiztegi apaizak Erregetxian solfeo erakusten zoskuen 30 lagun ingururi, eta danok koruko kide ginan”, kontatzen du Galarragak. Ikasitakoari etekina ateratzen jakin zuten: “Santa Zezilian eta gabonetan be kalera urtetan ginan jotera, kalejiran, gabaz. Gainera, “Cuarteto de cuerda” soka laukotia be baze-

Elkartearen X. urteurrenean bazkideei frontoian ateratako argazkia.



guan, Ramiro Larrañaga lauda, Eustaki Maiztegi gitarria, Vicente Mari Olaizola gitarria eta Angel Baiona bandurria jotzen”.

Danborradaren sortzaileak

Allegro elkarteak izan da Soraluzeko danborrada antolatzen aitzindaria, 1964an. Ignacio Ernabidek danborrada demaseko muntaia zela gogoratzen du: “Erropak lortu, karrozak montatu, orkestia lotu... Demaseko muntaia izaten zan... Baina dirua be egiten genduan egun horretako gastuak ordaintzeko”. Lehenengourteetan Arrasateko “Udalpe” elkarteak lagatzen zizkieten erropak ere eta gero, ‘Galerias Preciados’ dendetan erosi zituzten. Indarra hartu zuen danborradak. Bermeotik deitu zieten bertan jotzeko, baita Galdakaotik ere, baina ez omen ziren akordio ekonomiko batera heldu. Danborrada Santiago egunean ospatzen zenez, herriko jaiak Santana egunera aldatzeko eskatzen hasi ziren, jai ofiziala horixe izan zedin. 1978an laga zioten danborrada antolatzeari harik eta 1997ko karnabaletan eta jaietan umeena antolatu zen arte. 1999an berriro antolatu zen nagusia, gaur arte.

Lehenengo emakumea 2008an sartu zen

50. urteurreneko ospakizunak

Ekainak 26, zapatua

11:00etan -“Lagun giroan” argazki erakusketaren inaugurazioa Plaza Barrian.

12:00etan Ezoziko ama abesbatzaren kantu saioa Plaza Barrian.

13:00ean Salda, txorizoa eta ardoa, Plaza Barrian.

14:00etan Bazkide sortzaileei omenaldia eta auresku dantza, Plaza Barrian.

14:30ean Bazkide sortzaileei omenaldi bazkaria, Elkarteko Zuzendaritzaren eskutik.

Uztailak 3, zapatua

16,00etatik 21:00etara Mus txapelketa azkarra Allegroan, soraluzetar guztiei irekia.

Uztailak 10, zapatua, Bazkideen eguna

12:00etan buruhandien kalejira.

13:30etan gaur egungo bazkideen argazki ofiziala. Plaza Barrian.

14:00etan 50. urteurreneko bazkari ofiziala Allegroan bazkide guztiendako.



“Egoera bereziagatik” emakumeak kanpoan

Parekidetasunaren gaia aspaldiko kontua izan da Allegroan, eta berria da lehenengo emakume bazkidea. Javier Elorza historialariak emakumeak sartzeko ahaleginak askotan egin direla aitortu du, baina trabak ere handiak izan dituztela. Aktetan irakurri daiteke ezezko borobila jasotzen zutela, 52/1 ezetz irteten zela. Gainera, lehen emakumeek urtean bitan zuten sarrera irekia, San Juanetan eta Andra Mari jaietan. Zapatuetan ere ezin zuten, “Por las circunstancias especiales de los sábados”.

2008ko urtarrilean onartu zen lehenengo emakume bat elkartearen, aita galdu eta bere ordeztzeko eskakizuna aho batez onartu zenean. Horren ostean beste lau emakume egin dute eskaera eta onartuak izan dira. Denera, 92 bazkide ditu. Lorea de Castrok esaterako, bere osabaren bazkide da. Elkarteko diruzaina da eta Juntako lehenengo emakumea: “Estatutuak diñue, bazkidiak “varones y mayores de edad” izan bihar dabela. Oin hori aldatzen dabil. Nik ez dot inungo oztoporik izan elkartean sartzeko, baina jakin badakit beste elkarte batzuen egoeria berdina ez dala”. EAEko Defentsoriak egin berri duen azterketa baten arabera, Euskal Herriko elkarte gastronomikoen erdia baino gehiago gizonezkoen erreserbatua dago oraindik.

Ignacio Ernabide, Manuel Galarraga, Julian Bandaormatxea eta Vicente Mari Olaizola bazkide beteteranoak.



Lorea de Castro, Ohiana Garitano eta Jasone Axpe lehen emakume bazkideak

Azaleko argazkian: Allegroko soka laukotea, Eustaki Maiztegi (gitarria), Angel Baiona (bandurria) Ramiro Larrañaga (lauda) Vicente Mari Olaizola (marakak) Iturria: Argazki denak Allegro Elkartearenak dira.





4. MAILAKOAK SEGURAN




Apirilaren 26tik 30era, 4. mailako ikasleak eta Agure bi andereñoak Segurako barnetegian egon ginen. Bertara heldu ginenean bi begirale, Agustin (Takolo) eta Josetxo barnetegiaren sarreran zain genituen. Beste monitoreak Txema, Nagore eta Amaia geroago ezagutu genituen. Heldu bezain laster gure logelak erakutsi zizkiguten; lau gela, sei edo zortzi ohekoak bakoitza, gela handiak eta koloretsuak ziren. Arratsaldean margotzera joan ginen eta gure andereñoak "Segur" izeneko mamu bat zegoela esan zigun, orduan neskak txilioka hasi ziren.

Segurara ondo pasatzera eta lagun eta irakasleekin egotera joan ginen. Ekintza asko egin genituen: jolasak (konfiantza) irteerak, pelikulak, altxorren bila, pastak egitea, ...

Bertako maskota Txaparro da eta era desberdinetako txaparroak daude eta irabazi ditugu. Txaparro detektibeak lortzeko, gauero espedienteak asmatu behar genuen eta baita asmatu ere! Beste jolas batzuk ere bagenituen: zesta-punta, mahai-futbola, billarra, minigolfa, saskibaloia... .

Bikain pasatu genuen eta azkeneko egunean autobusean negar egin genuen bueltatzea nahi ez genuelako. Berriz joateko bezalakoa da eta berriz joateko gogo handia daukagu.

Primeran pasatu dugu!



Elkarbizitza ona daukazue eskolan?

Zela moldatzen zarie zuen artian?

Gorka Zabala, 8 urte



Normalian oso ondo moldatzen gara gure artian, batzuetan hasarriak be izaten dira baina berba egitten konpontzen dittugu. Eta buruketan hasten bagara, pentsatzeko txokora goiaz andereñuak hala aginduta.

Miren Alonso, 7 urte



Ondo moldatzen garala pentsatzen dot nik. Andereñuak ez gaitu zigortzen eta ni ondiok ez naiz pentsatzeko txokora juan. Gure artian maitatu eta goxo-goxo zaindu bihar garala ikasi dogu elkarbizitzan.

Nik elkarbizitza proiektuan letrak egitten ikasi ditudu, maiuskulak eta minuskulak ezberdintzen. Nere ikaskidiak be eskolako lanak egitten ikasten dabe elkarbizitzan. Gure artian ondo moldatzeko eta lagunak egitten ikasteko balio dosku ikasitakuak.

Saray Salguero, 9 urte



Elkarbizitzan eskolarako materiala emoten doskue, gero guk ondo zaintzen ikasi bihar doguna. Lagunekin ondo moldatzen naiz eta oso gutxitan izaten ditudu hasarriak. Bestela danak ... pentsatzeko txokora!

Adur Odriozola, 8 urte



DENBORAPASA



4 Sinonimoekin jolasean

Irinez betetako bina poltsa hartu behar ditu okin bakoitzak. Ez edozein, baina: esanahi bereko bi zaku.

Nola banatuko zenituzke zakuak?

ZER TRIZTEN DOTSAZU?

Urtia hasi danetik 44 hildako egon dira euskal errepidietan. Bolada beltz honek aspaldiko eztabaidia ekarri dau.

Zergatik gertatzen dira auto istripuak? Zela ebitatu leikez?

ENRIQUE USANDIZAGA

Jubilatua



Danetik pixkat. Abixara larregi batzuetan, trago larregi bestetan... Esperientzia gitxiko jendia be ibiltzen da, karneta etara barri, errepidietan. Errespetua bihar da kaminuan, eta abixariari be errespetua.

MIREIA MUÑOZ

Tabernarixa



Zaila da arrazoia zein dan jakittia. Askotan bat gaizki juatiakin arriskua hor dago. Jendia konsziente izan bihar da kotxia erabiltzerakuan; askotan, zure ekintzak bestieri eragitten dotse eta beste bat hil zeinke.

ANTONIO AGUADO


Tornerua



Gazterixiandako jostailu bat da autua, neskatilekin juan ezker ondio gehixago. Autua oso gauza serixua da eta ez dabe arriskua ikusten. Baina oso zaila da hori aldatzia, bakoitzan mentalidadia aldatu bihar da.

AMANDA HERNANDEZ

Ikaslia



Alkoholak eta abixariak eragitten dittue istripuak, baina gazte guztiak be ez gara ardurabariak. Nik uste dot autobus gehixago ipinitta eta ardura pixkatekin jokatuta jaitisiko lirakezela istripuak.

**TXOKO
KAFETEGIA** 

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. T. 943 75 17

PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIBA

Esku eskura! Telf. 943 75 13 45

**MARI MAR
HARATEGIA**

*Gurean
Euskal Herriko
produktuak!*

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

Diagnostiko Biologikoa
Naturopatia
Homeopatia
Fitoterapia Ortomolekulara
Kromoterapia
Bach-en loreak...

ioko

Medikuntza Alternatibo Zentrua
Centro de Medicina Alternativa

Jandorianiz, 3 Behea
20720 Azkollia.
Boulevard, 9 Príncipe A
20003 Donostia
Tlf: 415 779 920
www.medicinaalternativa-ioko.net

Ardi txakur erakusketa Ezozin

Ekainaren 13an Ezozin auzoko jaiak ospatuko dira. Eguerdiko 12:00etan Mendotz eta Bizkai trikitilariak alaituta, salda eta txorizoa banatuko dute. 12:30ean meza izango da eta jarraian herri kirolak. Ardi txakur erakusketa izango da aurtengo ekitaldirik esanguratsuenak, Iparraldeko jokoak eta trontza erakustaldiarekin batera. 14:30ean Armendi jatetxean bazkaria egingo dute eta 18:00etan haurrentzat zezentxo eta zalditxoak izango dira. Eguna opari banaketarekin amaituko da Ezozin.

Ander Lizarralde bertsoan irabazle

IX. Plazatik Gaztetxera txapelketaren bigarren kanporaketan Ander Lizarralde izan zen gairaila. 80 lagun inguru batu ziren saiora. Unai Soralezek gai jartzailer moduan jardun zuen eta txapelduna koska bat gorago aritu zen saio osoan zehar. Azkenean berak eraman zituen epaimahaiaren eta publikoaren sariak.

Soraluzeko sailkapena:

Ander Lizarralde 214
Aitor Urnieta 189
Ander Elortegi 186,5
Ekhi Erremundegi 186,5
Patxi Iriart 180
Eneko Beretxinaga 178



Aire libreko margo lehiaketa

XVII. Aire libreko margo lehiaketa domekan izango da. Aurten bi kategoriatan banatuko dira parte hartzaileak, helduak eta nagusiak. Izena egun berean emango da, goizeko 8:00etatik aurrera udaletxean. Margoa egiteko erabiliko duten lientzua seilatuko dute eta eguerdiko 12:00ak arte izango dute koadroa pintatzeko denbora. Irabazlearen izena arratsaldean jakinaraziko dute.

Parte hartzaileen lanak kiroldegian ipiniko dituzte ikusgai, ekainaren 5era bitartean.

Dantza eta bertsoak nagusi aurtengo Euskal Jaian

Ekainaren 6an hasi eta 12ra arte iraungo du aurtengo Euskal Jaiak. 40. urtea beteko du Haurrenak ekainaren 6an eta 160 dantzarik dantzan jardungo dute goiz eta arratsalde. Ekainaren 9an, ostera, buruko zapia ipintzen trebatzeko ikastaroa izango da Plaentxi HI.n iluntzeko 7etatik aurrera, Urrats Dantza Taldekoen eskutik.

Bertso saioa txapeldunekin

2009ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalean izandako lau izango dira Udalak antolatutako saioan: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Jon Maia, Unai Elizasuk ipinitako gai erantzunez. Ekainaren 11an, 22:30ean Zinean izango da. Sarre-rak 8 eurotan salgai izango dira Kiroldegiko harreragunean.



III. Erromerixa Eguna

Ekainaren 12an izango da aurten Ezoziko Erromerixa Eguna. Antolatzaileek hainbat ohar eman dituzte: bazkaria eta kafea norberak berea eraman

behar duela, mahaiak eta aulkiak bertan egongo direla eta bazkaltzeko lekua hartzeko Iratxo goxodendan izena eman daitekeela, lehentasuna izateko.

Hona egitaraua:

- **11etan** salda eta txorixoa Plaza Barrixan
- **Jarraian**, Ezozira igoera herriko trikitilariekin kalejiran
- **12:30ean** erromeria Ezoziko plazan, Arrasateko dultzaineroekin eta herriko trikitilari eta musikariek. Tartean, Larrain dantza egingo da.
- **14etan** bazkaria
- **18etan** "Herrixa dantzan Ezozin". Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin eta Patxi Monteroren gidaritzapean, plaza dantza errazak.
- **19etan** bolo txapelketa
- **19:30ean** Xero Xieterekin erromeria.



2010eko Bolari Eguna Ezozin izango da

Ekainaren 5ean, zapatua, Gipuzkoako Hiru Txirlo bolo txapelketako azken jaurtialdia jokatu da Ezozin eta Bolari Eguna ere izango da, egun berezia lehiakideentzat. Eguerdiko

12:30ean hasita, guztira 60 jokalaririk inguruk hartuko dute parte. Ondoren, parrokoak erabakiko dira. 14:30ean 80 lagunek bazkaria egingo dute Txurruka jatetxean eta bazkal ostean, Gipuzkoako txapelketako maila ezberdinetako sari banaketei ekingo diete. Jarrera Anderrek eta Iosunek giroa alaituko dute musikarekin.

pelketako maila ezberdinetako sari banaketei ekingo diete. Jarrera Anderrek eta Iosunek giroa alaituko dute musikarekin.

Rafael Corcherori omenaldia

Rafael Corchero soraluzetarra izango da aurtengo omendua. Aspalditik dator kio Rafaeli boloekiko zaletasuna. Lehenengo urratsak Soraluzen zegoen bolatokian eman zituen, gero Sagar Erreakoan eta azkenik Txurrukakoan. Bola botatzeko moduagatik bolari berezia dela diote eta bizitza osoa eman du bolatokiak prestatzen eta txapelketak antolatzen; horregatik omenduko dute.



Iturria: Iñaki Ariznabarreta

Erregionalek galdu egin dute promozioko lehen partidua

Gorengo Erregionaletako promozioa jokatzeko ari dira Sorako Erregionala eta Urnietaren arabera plaentxiarrak mailaz jaitzi edo mantenduko diren erabakiko da.

Joan den asteburuan erregionalek Urnietaren aurka jokatu zuten Estalan eta 0-1 galdu. Bigarren partidua asteburu honetan izango da Urnietako futbol zelaian.

Denboraldia amaitu da jubenil eta kadeteentzako

Jubenileketakadeteek berriz amaitu dituzte kopako partidua eta denboraldia. Jubenilek bosgarren postuan amaitu dute, 12 punturekin. Sailkapenean lehena Azpeitiko Ikasberri da, 27 punturekin. Kadeteak sailkapenean 3. geratu dira, 13 punturekin. Lehenengo Aretxabaleta dago, 32 puntu lortuta.

EMAITZAK

PELOTA

Titin III. – Laskurain 22
Berasaluze IX – Pascual 15

Titin III. – Laskurain 15
Berasaluze VIII. – Begino 22

KOOPERATIBAKO

100 URTEURRENEKO PELOTA PARTIDEN EMAITZAK:

Santamaria – Kortabarria 22
Aristi – Diez (Bergara) 20

Atxotegi – Jauregi 22
Muguruza – Loiola (Berg-Elgoi.) 20

FUTBOLA

Urola K.E. – Sora (Erreg.) 3 - 2
Sora (Erreg.) – Urniet 0 - 1
Sora (Jub.) – Eibartarrak "B" 1 - 3
Aretxabaleta "B" – Sora (Kad.) 8 - 0

AGENDA

FUTBOLA

Zapatua 18:00etan
Urnietako futbol zelaian
Urniet – Sora (Erreg.)

F.C. BARCELONAKO JARRAITZAILEEN AFARIA

Ekainaren 5ean Barça taldearen jarraitzaileek afaria egingo dute Txurruka jatetxean. Afaltzera joan nahi dutenek, Kutxaren 0125242032 kontu korrante zenbakira 20 euro sartu beharko dituzte maiatzaren 29a baino lehen.

HIRU TXIRLO BOLO TXAPELKETA

Hurrengo jaurtialdia:
Maiatzaren 29an, zapatua, arratsaldeko 17:00etan Asola Berri Eibarko bolatokian.

Erakustaldi koloretsua kiroldegian

Maiatzaren 23an herriko 40 gimnastek, Eibar, Markina, Mutriku eta Urrretxuko beste 140 neska eta mutilen batera gimnasia erritmikoko erakustaldia eskaini zuten kiroldegian. Kolorez betetako jantziekin, musika lagun, hainbat mugimendu eta eszena ezberdin eskaini zituzten.



Iturria: Miguel Bugedo



ZORION AGURRAK



Jon Lopez

Maiatzaren 20an 5 urte!
Zorionak etxekoan partez
eta ondo-ondo pasatu zure
egunean!



Isabel Lizarralde

Maiatzaren 18an 52 urte.
Zorionak ama!!! Segi orain
arte bezain jator eta polit!



Enara Oñederra Rascon

Maiatzaren 31an 20 urte.
Zorionak Enaraaa!!!
Ondo-ondo pasatu
senitartekoen partez!



Enrique eta Beñat

Maiatzaren 4an eta 29an
urteak betetzen dituzuelako, zorionak eta
muxu handi bana danon partez!



Jokin Olamusu

Maiatzaren 23an 7 urte!
Zorionak txapeldun eta
muxu handi asko
etxekoan partez



Uxue Ariznabarreta

Ekainaren 2an 9 urte!
Zorionak sorgintxo!!
Muxu handi bat Zaloe eta
famiariaren partez!



Eider Gallastegi Blanco

Maiatzaren 22an urtebete!!
Zorionak maitia,
etxekoan partez!!



Maiatzaren 30ean

40 urte ezkontuta!
Zorionak aitita eta amama!
Zuen biloben partez!



Irati Unamuno Fernandez

Ekainaren 10an urtebete!!
Zorionak poxpolintxo!
Muxu handi bat etxeko
denen partez.



Ane Larreategi

Ekainaren 2an 27 urte!
Zorionak Anetxoooo!!
Ta hartu indarrak
kebranta txikiya iteko.



Garazi Aizpurua

Ekainak 12an 7 urte!!
Zorionak eta muxu
asko etxekoan partez



Nerea eta Egoitz!

Zorionak politatik!
Muxu handi bat
Pil-pileaneko laguneren partez!

jaiotakoak

NOAJ CENZUAL CARDOZO



hildakoak

MARIA LUISA BURDALO ARROYO
MARIA ECENARRO ITURRALDE



LEHIAKETA

- Zein ageri da argazki honetan?



- **Saria:** Euskal Jaietako bertso saiorako bi sarrera

Oharra: Lehiaketako zozketa ostiral eguerdian burutuko da.

- **Irabazlea:** Aitor Barrutia

- **Pili Calleja,** Vidal frutategiko langilia da pasa dan aleko argazkixan agertzen zan soraluzetarra.



deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Evarista Aristimuño gaztetan, Ekuadorreko baso baten.

Iturria: Emilita Altuna

EVARISTA ARISTIMUÑO, MISIOLARI AZKENERA ARTE

Evarista Aristimuño soraluzetarra martxuan 16xan hil zan Barañainen, 83 urte zittuala. Misinuetako lanak egitteko gogua zeukala eta, 1951. urteko urrian 7xan, 24 urtekin, Iruñeko Dominikas misinuetan sartzia erabaki zeban. Ordunik herrialde askotan jardun dau bertakueri laguntzen.

Ekueadorren presueri laguntzen

Lehenengo misinua Atarrabian egin zeban, etxetik gertu. Atarrabiatik Zaragozara salto egin zeban eta handik Erromara. Azkenik, eta urte gehixen emon zittuan herrialdia, Ekuador izan zan, 30 urtez egon zan bertako preso espainiarreri euren herrira aske bueltatzeko eta laguntza eskatzeko tramitiak egitten. Asko eta asko izan ziran bere laguntziari esker etxera bueltatu ziran presuak. Osasunez nahiko makal zegalako Barañaineko Nagusien Egoitza baten emon dittu bere bizitzako azken urtiak baina beti be, bere ahizpa misiolarixeri azken ordura arte lagunduz.

Soraluzeko
Euskal Jaixak
 2010



XL. Haurren Euskal Jaixa
 Ekainak 6, domeka
 Debaioinako 200 ume dantzari kaltetan dantzan
 11:00etan hasitta, egun osoz.



Bertso Jaialdia
 Ekainak 11, barixakua
 M. Lujanbio, A. Egana,
 A. Arzallus eta J. Maiarekin.
 22:30ean Zinian.



Ikastarua
 Ekainak 9, egvaztena
 Buruko zapirua ipintzen trebatzeko ikastarua.
 Urrats Dantza Taldekuen eskutik.
 19:00etan Plaentxi H.I.ko aretuan.



III. Erromerixa Eguna Ezozin
 Ekainak 12, zapatua
 Kalejiria, dantza ikuskizuna, bazkaixa,
 erromerixa egun osoz



GAZTELUPE
 taberna
 tel: 943 75 20 81

ARRANO
 taberna
 etorri eta gozatu
 giro euskalduna eta sanua

etxera

MENDIZABAL
 okindegia

Kalebarren 10
 T. 943 75 20 91
 Baltegieta 6
 T. 943 75 13 99
SORALUZE

HNOS. BENITO
ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
 Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe
 I. eta F. 943 75 20 47
 Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

SAN ANDRES
 ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
 eta berogailuak
 sukaldeak eta bainuak
 Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
 jotako tornilluak
 Errekalde 21 T. 943 75 00 06
 20590 SORALUZE T. 943 75 16 00
 F. 943 75 24 61

| lan
munduratzeara

| herrilan
eta azpiegiturak

| teknologia
eta berrikuntza

| enpresei
laguntzea

Krisiaren aurkako 2010 Plana 100 milioi euro

Gipuzkoan badugu Plana:

Inbertsio publikoa azkartzea, enplegua sortzea
eta gure enpresei laguntzea, berrikuntzaren
aldeko apustu irmoa dela medio.